# Xedapen Orokorrak

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

### Zk-6189

AGINDUA, 2002ko urriaren 15ekoa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos, SAren Tranbien Zirkulazio Araudia onartzeko dena.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaren bidez, Espainiako Administrazioak Euskal Kontseilu Nagusiaren esku utzi zituen abenduaren 30eko 44/1975 Legean arautudako eskumenak eta FEVEk Euskadin ustiatutako trenbide-zerbitzuak. Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak Euskal Autonomia Erkidegoari eman zion, 10.32 artikuluan, ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten trenbideen alorreko aginpide esklusiboa, eta, hortaz, aldi baterako xedapenetan bigarrenak ezarritakoaren arabera, Estatutua indarrean sartzean Erkidegoak behin betiko hartu zituen bere gain autonomia aurreko aldian transferitutako aginpideak.

Maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren bidez Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, SA sortu eta haren estatutuak onartu ziren, eta urtarrilaren 25eko 56/1994 Dekretuaren bidez aldatu egin zen Dekretu hura, besteak beste, honako hau duelarik helburu soziala: «pertsona eta merkatalgaien trenbidezko eta errepidezko garraio publikoa ustiatzea, bai abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretu bidez eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez transferitutako lineei dagozkiena, bai Dekretu bidez eskatzen zaizkionak, bai eta zerbitzu horiekiko emakida eman edo baimenduriko beste edozein garraio zerbitzu publiko eta kable bidezko garraioa».

Abenduaren 15eko 380/1998 Dekretuaren bidez, Bilboko tranbiaren A linearen San Mames-Atxuri tartea ustiatzeko ardura Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, SA sozietate publikoari eman zitzaion, eta gainera, Euskadiko beste herri batzuetan ere garraiobide hori ezartzeko hainbat proiektu daude.

Horrela, bada, laster Bilboko tranbiaren A linearen San Mames-Atxuri tartea martxan jarriko denez, eta etorkizunean linea hori handitu edo berriak egin daitezkeenez, behar-beharrezkoa da, Lurreko Garraioak Antolatzeko Legearen Araudia onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 264.1 eta 279.1 artikuluetan xedatutakoa betez, tranbia linea horien ustiaketan bete beharko diren arau teknikoak onartzea, batez ere, erabiltzaileen segurtasuna zaintzeko zirkulazio-arauak. Hori dela eta, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SAk Tranbien Zirkulazio Araudiaren proposamena egin du eta proposamen horrek Sail honen

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

### N°-6189

ORDEN de 15 de octubre de 2002, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se aprueba el Reglamento de Circulación de Tranvías de Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos, S.A.

Por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto se transfirieron de la Administración del Estado al Consejo General del País Vasco las competencias reguladas en la Ley 44/1975, de 30 de diciembre, así como los servicios ferroviarios explotados por FEVE en territorio del País Vasco, viéndose afectada posteriormente tal disposición por el Estatuto de Autonomía para el País Vasco que confirió a la Comunidad Autónoma en el artículo 10.32 la competencia exclusiva en materia de ferrocarriles que transcurran íntegros por la Comunidad Autónoma, quedando, conforme a la disposición transitoria segunda, asumidas con carácter definitivo las competencias transferidas en período preautonómico.

Por Decreto 105/1982, de 24 de mayo, modificado por Decreto 56/1994, de 25 de enero, se creó la sociedad pública «Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A.» y se aprobaron sus estatutos, teniendo como objeto la citada sociedad, entre otros, la explotación del servicio de transporte por ferrocarril y carretera de personas y mercancías, tanto de las líneas transferidas a la Comunidad Autónoma de Euskadi por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto y por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, como aquellos otros que se le encomienden por Decreto, concedan o autoricen respecto a dichos servicios o el de transporte por cable.

Mediante Decreto 380/1998, de 15 de diciembre, se atribuye a la sociedad pública «Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A.» la explotación del tranvía de Bilbao, tramo San Mamés-Atxuri, Línea A., existiendo diversos proyectos para la implantación de este tipo de transporte en otras localidades de Euskadi.

La próxima puesta en explotación del tranvía de Bilbao, tramo San Mamés-Atxuri, Línea A, así como cualquiera futura ampliación de la misma o la creación de nuevas líneas de tranvía, hace necesaria la aprobación de la presente norma, por lo que, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 264.1 y 279.1 del Real Decreto 1211/1990, de 28 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley de Ordenación de los Transportes Terrestres, se procede a aprobar las normas técnicas a las que ha de sujetarse la explotación de las citadas líneas de tranvías, especialmente aquéllas referentes a la circulación con las que deba salvaguardarse

onarpena eskatzen du, 2001eko urriaren 9ko Administrazio Kontseiluak onartutakoa betez.

Ondorioz, Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen urtarrilaren 15eko 20/2002 Dekretuaren 4. artikuluaren arabera dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* 1.– Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, SAren Tranbien Zirkulazio Araudia onartzea. Araudia eranskinean dator.

2.– Araudi hori Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, SAri ustiatzeko agindutako tranbia lineetan erabiliko da, bai eta etorkizunean, lehen daudenak handitu egin direlako edo berriak eraiki direlako, ustiatzeko agintzen zaizkionetan ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira Agindu honetan ezarritakoaren kontrakoak edo horrekin bateraezinak diren lerrun bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko urriaren 15a.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
ALVARO AMANN RABANERA.

**Eranskinak ale gehigarri bereizian argitaratzen dira**

la seguridad de los usuarios, habiéndose elaborado por la propia sociedad «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» una propuesta de Reglamento de Circulación de Tranvías, que, en cumplimiento de lo acordado en el Consejo de Administración celebrado el día 9 de octubre de 2001, se somete a la aprobación de este Departamento.

En su virtud, y en ejercicio de las competencias que me corresponden conforme al artículo 4 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas,

DISPONGO:

*Artículo único.–* 1.– Aprobar el Reglamento de Circulación de Tranvías de Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A., cuyo texto se acompaña como Anexo.

2.– Dicho Reglamento se aplicará a las Líneas de Tranvía cuya explotación está encomendada a la Sociedad Pública « Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.» así como a cualquier futura ampliación de las mismas o Líneas de nueva creación cuya explotación sea encomendada a dicha entidad.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan, contradigan o resulten incompatibles con las determinaciones de la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de octubre de 2002.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
ALVARO AMANN RABANERA.

**Los anexos se publican en suplemento aparte.**